

## AURKEZPENA

*Iragana ez da gure, jitekoa ez da gure;  
ez da gure presentean dena baizik.*

1905 urteari lotua datorkigu edukietan GOGO A V-2. Gogo iraganeko gertaerei lotzen zaien moduan; gogo oroitzapena, hau da, jakintza, den heinean. 1905 urtea erabakigarria izan zen Albert Einsteinentzat eta fisikarentzat. 1905ean argitaratu zen Bertrand Russellen 'Denotatzeaz' ere, euskaraz GOGO A n 2002an emana, bere neurrian, hizkuntzaren filosofiarentzat eta filosofia analitikoarentzat erabakigarria izan zena. Honako GOGO A hau irekitzen duen lehen testua bi jeniok maila politikoan egindako elkarlanaren emaitza da: *Russell-Einstein Agiria*, 1905ean ez, 50 urte geroago kaleratu zutena. Zoritxarrez, logikari eta fisikari egindako ekarpenek bezala, beren aldarrikapenek ere ez dute gaurkotasunik galdu. Aldarrikapena, oroitzapena, justizia dakartzkigu gogora itzultzaileak, Jesus Mari Larrazabalek.

Larrazabalek berak egina da Jean Piageti Richard Evansek egindako elkarriketa ere, Piageten heriotzaren 25 urteurrena betetzen den honetan.

Zabal-zehatz begiratzat atalean jasotako lanak atzerago begiratzen du. Ez 25, 50 edo ehun urte, 25 mende baizik, edo 26. Aristoteles handiaren *Erretorika* du aztergai, diziplina hori, erretorika, indarberritzen ari dela dirudien garaiotan.

Artikuluaren atalean bi lan jaso ditugu. Batek gaur-gaurko lan baten berri dakarkigu. Euskararentzako ezagutza-base baten eraikuntza aurkezten digute Eneko Agirre, Izaskun Aldezabal eta Eli Pociellok: *EuskalWordNet*. Honek ez du, nik dakidala behintzat, 1905 urtearekin lotura zuzenik. Baina Alain Ulaziak dakarkigunak bai: urte hori, Einstein eta fisika ditu aztergai, hain zuzen ere.

Liburu kritiketan, berriz, hizkuntzaren filosofiako eta epistemologiako egile ezagunen liburuenak jaso ditugu. Kepa Kortak zalaparta ugari eragin duen Cappelen eta Leporeren *Insentive Semantics* aztertu du. Jule Goikoetxeak logikan eta epistemologian hainbat ekarpenen egile den Susan Haacken *Defending Science within Reason*. Aurkezpen laburren atalak eta kongresu, jardunaldi eta ikastaroen berri dakarrenak ixten dute alea.

Edukietan 1905i lotua dator GOGOIA hau; iraganari, oroimenez. Azalean ez dago garbi. Barraskiloa badoala dirudi. Eskilaran goikoak behera (atzera, iraganera) egin nahi ote duen edo behekoak gora (aurrera, gerora) ezin jakin. Korapiloa orain behintzat askatu gabe dagoela seguru.

*Zuzendariak*

Donostian, 2005eko urriaren 23an